

# BERRIKETA

Debako herri aldizkaria - 179. alea - 2013ko azaroa


**Nora Mugarza, argazkien  
xarmak liluratuta**

**mo** MULTIÓPTICAS UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS  
Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A  
D**

**ASESORIA DEBA C.B.**  
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

**atari**  
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Menua  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 488 - 918 844 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818

**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

**MAZZANTINI**  
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel. 943 192 422

**BOKATAK - PINTXOAK**  
ETA GIRO ONA

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**Bordatxo**  
JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Afiariak: 20:00 / 23:00

**BEREZITASUNA PARRILAN:**

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

**BERRIKETAN**

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkartea

**Erredakzio taldea:**  
Goizane Aizpurua,  
Mikel Aizpurua,  
Koldo Aperribai,  
Izaro Aulestiarte,  
Nagore Dorronsoro,  
Lukax Dorronsoro,  
Xabier Laka,  
Migel M.Lekube (Lutxo)  
Ina Oartzabal eta  
Eider Zulaika

**Azaleko irudia:**  
Beñat Romera

**Publizitatea:**  
Joseba Escudero eta  
Juan Mari Gurrutxaga  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
943 19 26 94

**Logotipoaren diseinua:**  
Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio  
**Banaketa arduraduna:**  
Juanma Oartzabal

**Inprimategia:**  
Euskalinpri

**Tirada:**  
1.400 ale

**Lege gordailua:**  
SS-246-2009  
ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.*

**ARGITARATZAILERAK**

**Zuhatza**  
Euskara elkartea

**LAGUNTZAILERAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA,  
KULTURAREN POLITIKA,  
KULTURAREN POLITIKA,  
KULTURAREN POLITIKA,  
KULTURAREN POLITIKA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

[www.gurebalioak.com](http://www.gurebalioak.com)



**ITZIAR auzo-udal bilakatze bidean:**  
**Debako Udal Plenoak aho batez onartu du Itziarren Tokiko Entitate Txiki bat eratzeko hasierako erabakia.**  
**08-09**

**KOLABORAZIOAK:** Mattin Urbieta, "Ez dago soberan" eta Debako Gazte Asanblada, "Gazte, etorkizunari heldu!". **05-06**

**ALBISTEA:** Gure Balioak 2013 saria, Carmelo Urdangarini.

**10 BERRIKETAN GAZTEA:** Elgoibartarren kexak, elkarriketa, denbora-pasak... **11-14 ALBISTEA:** "Deba 100 hitzetan" lehiaketak baditu irabazleak.

**15 LABURRAK:** "Oteizaren hazia", Bertso finala... **16-17 ZERBITZUAK:** **18**





*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: *berriketan@zuhatza.com* edo *koordinatzailea@zuhatza.com*.

## Ez dira betiko garai onenak Debako Elektrotxaragarentzat

Herritar agurgarria:

Ez dira betiko garai onenak Debako Elektrotxaragarentzat (egunean Eutsi taldea). Audientzia Nazionalak zer esango zain gaude, gure taldeko abeslariarentzat 18 hilabeteko kartzela zigorraren eskaera egin baitu fiskalak, presoan omenaldi batean parte hartu eta terrorismoaren apologia egitea egotziz. Hau dena 2012ko ekainean Gasteizko Kutxi kalean jotzen ari ginela gertatu omen zen.

Gasteizkoa beste emanaldi bat izan zen guretzat. Debatik autobusa antolatu eta herriko gazte jendez bete genuen. Ez gindoazen ez inolako manifestaldi edo aldarrikapen berezirik egitera, gure asmoa betikoa zen; kalean zehar instrumentuak jo eta kaleak girotzea. Herri bazkari desberdin batean jan ondoren, poteotxo bat burututa jotzen hasi ginen Gasteizko alde zaharreko Kutxi kalean zehar, bertako jaiak ospatuz. Jotzen ari ginela presoan aldeko omenaldi bat burutzen ari zen jende kopuru handi batekin bildu ginen eta haiekin partekatu genituen Kutxiko bazterrak poteo alai eta emotibo batean: bertsoak presoan senideei, aurrekuak, elektro abesti batzuk... dena giro alai eta sano batean. Hau bukatuta kalean jotzen jarraitu genuen neka-neka eginda bukatu arte, dana emanda.

Ustekabea "La Razón" egunkariak eman zigun. Bertan argitaratu zen filtrazio bati esker, Asociación de

Víctimas del Terrorismo-k (AVT) inputazioak eskatu zizkion Audientzia Nazionalari Youtuben eskegitako bideo batengatik. Bideo hau Zaharraz Arro! -ko webgunean agertu zen eskegita (Gasteizko alde zaharreko kolektiboa eta Kutxiko jaien antolatzailea). AVTren ustez bideoan terrorismoaren apologia gauzatzen zen. Artxibo horretan, Debako Elektrotxaragako kideak agertzen gara kalean jotzen, bertsolariak, dantzariak... eta baita autobusa bete zuen herriko gazte jendea ere.

Urtarrilean auto bat iritsi zen eta, honen bitartez, 11 lagun Madrilerara deituak izan ziren deklaratzera. Horietako bat Iker Vela taldeko abeslaria zen. Audientzian hainbat pertsonak deklaratu ondoren, azkenik, 17 pertsona daude inputatuta. Abuztuan jaso genuen fiskalaren eskaera eta 18 hilabete proposatzen ditu 17 lagunentzat (Iker barne) eta beste 24 preso ohi batentzat. Epaiaketaren zain gaude gaur egun.

Gutun honen bitartez, Deba herriko talde batek bere jardueran jasan duen errepresio nabarmenaren berri eman nahi genizuen, eta ozen esan nahi dugu presoenganako elkartasuna adieraztea ez zaigula delitua iruditzen, ezta gure herria musikaren laguntzaz defendatzea, maitatzea eta norberaren sentimenduak adieraztea ere.

Elkartasuna ez da delitua!!

*Debako Elektrotxaranga / Eutsi taldea*

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



# MATTIN URBIETA

## EZ DAGO SOBERAN

Egunak aurrera doaz, eta hauek bezalatsu urteak. Ez dut uste gero eta azkarrago pasatzeak Einstein-en erlatibitatearen teoriarekin zerikusirik duenik, baina badirudi adinean aurrera egin ahala, azkarrago igarotzen dela denbora. Baliteke horren arrazoia bizi dugun unea aurretik bizitako denbora tartearekin alderatzen dugula izatea; zenbat eta zaharrago izan, igarotzen den egun bakoitza orduan eta motzagoa da gure ordu arteko bizitzaren neurriarekin alderatuta.

Konturatzerako, iritsi da niretzat, ondo bidean, azken ikasturtea Fisikako Graduan. Badirudi here-negun etorri nintzela Leioako campusera lehen aldiz. Hiru urte pasatxo igaro dira ordutik hona, gutxi barru lau (Boloniako Prozesuarekin Lizentziatura eta Diplomaturak desagertu, eta unibertsitateko ia ikasketa guztiak lau urteko Gradu bihurtu zituzten). Edonork bizitzeko aukera izan beharko lukeen esperientzia, batzuk hala izan ez dadin saiatzan ari diren arren.

Une ederrak, ilunak, gogorak, zoragarriak, latzak, mingotsak, ahaztezinak, oroitze hutsak irribarre bat sorrarazten dizutenak... ia denetik bizitzen da. Aberasgarriak oso norberaren izatearen eraikuntzan. Kolore eta argilunez beteriko mundu bat, mila errealitate ezberdinez osatua, elkar elikatuz.

Arrisku bat badu ordea honek guztiak. Ikasketa batzuetatik beste batzuetara dagoen aldea

gora-behera, denbora, lana eskatzen du. Ikasteko gogoia lagungarri da oso. Eta batzuetan ezin ekidin errealitatetik ihes egitea, herriko errealitatetik. Lagunak, familia, bakoitzak izan ditzakeen konpromisoak. Horiei loturik hartzen dira gehienetan erabakirik zail eta mingarrienak. Norberak baditu bere barne-guda eta -borrokak; horiek kudeatzen asmatzea izan ohi da erronkarik handiena bizitza honetan.

Ikasketetan aurrera egin ahala, gainera, areagotu egiten da joera hau; denbora gutxiago ezertarako. Adibidez, Boloniako Prozesuarekin Gradu Amaierako Lana ezarri zuten Gradu gehiengotarako, guztietarako ez baten. Gradua amaitzean aurkeztu beharreko proiektu bat, alegia. Lan eskerga.

Hauei lotuta duela gutxi jendaurreko mintzame-na lantzeko ikastaro bat izan genuen. Bertan ziotenaren arabera, besteak beste, oso garrantzitsua da gorputz adierazpena, eta baita azaldu nahi dugun ideia hitzaldian zehar errepikatzea, era ezberdinetan, entzuleengana geure mezua iris dadin. Begi-bistakoak dirudite.

Baina, dakizkigun, edo dakizkigula uste ditugun horiek noizean behin beste baten ahotik entzutea komenigarria da, gauza berriak ikasteko, eta zaharrei hautsa kentzeko.

Beraz, lantzean behin bada ere, maite ditugunei hala dela adierazi behar genieke. Ingurukoei adierazi bertan gaudela. Ez dago soberan.





Debako Gazte Asanblada

## GAZTE, ETORKIZUNARI HELDU!



**13 urte** pasa dira Debako Gazte Asanblada sortu zenetik, esfortzuz eta gogoz beteriko urteak. Azken urtean emandako errelebo generazionalak gure ilusio eta lanerako gogoak eraberritu ditu, era berean erronka eta helburu berriak finkatu dituelarik.

Nahiz eta asanblada azken urteetako anitz eta zabalenetakoa izan, asanblada ez da pertsona kopuru batera mugatu behar, asanblada adin eta pentsamoldeez gaindiko mugimendua da. Horregatik, aurtan dugun erronka asanblada herrira zabaltzea da, herri guztia asanbladaren jardunetan inplika dadin.

Gazte Asanblada herriko gazterian finkatuta dagoen taldea da, urteetako lanaz gazteriaren aisialdi eta kultur alternatiba eskaintzan talde erreferentziala bilakatu da. Hala ere, nabaria da Debako gazte mugimenduak desaktibazio garaiak bizi dituela, distentsio eta pasotismo garaiak. Gazteriaren gaur egungo errealitateak, bizi ereduak, prekarietateak, gazteriaren aktibazioaren beharra eskatzen du. Gure geroa antolakuntzaz eta borrokaz soilik aldatuko dugu, bada garaia kalera atera eta gure gazte heldutasunetik etorkizun ilunari aurre egiteko!

Asanbladaren 13 urteko ibilbide luzea ospatzeko, ekintzaz beteriko egitaraua prestatu dugu. **Animatu eta parte hartu!**

Hona hemen behin-behineko egitaraua:

### Abenduak 5, osteguna:

- 19:00etan PREGOIA plaza berrian.
- Ondoren BERTSO-PINTXO-POTEOA.
- 22:00etan BERTSO AFARIA Arrano Elkartean.

### Abenduak 6, ostirala:

- 11:00etan JAI EGUN ARROTZEI INTSUMISIOA! Gosaria-Hitzaldia-Txalaparta ikastaroa. Plaza berrian.
- 17:00etan MUS TXAPELKETA plaza berrian.
- UMEENTZAKO JOLASAK herrian zehar.
- Arratsalde osoan zehar DGA Txokoa arkupetan.
- Materiala-Bideoak-Argazkiak.
- 22:00etan FERMIN BALENTZIA Gaztetxean.

### Abenduak 7, larunbata:

- 12:00etan ELEKTROPOTEOA plaza berritik.
- 14:30ean MAKROMAKARRONADA HERRIKOI ERRALDOIA!
- Bazkaldu ondoren, Turri eta Amaia. KONTZERTU AKUSTIKOA.
- Ondoren kuadrilen arteko ELEKTROPOTEOLINPIADAK!
- 22:30ean KONTZERTUAK Gaztetxean.

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# Nora Mugarza

“Egiten duguna jendearengana zabaltzen saiatu behar gara, arte munduan nola edo hala murgildu nahi badugu”



Beñat Romera

Gasteizko Amarika aretoan Viphoto Azoka ospatuko da laster, eta Nora Mugarzaren argazkiak izango dira bertan ikusgai, epaimahai batek hala erabakita. Albiste horrek eman dio aukera *Berriketan*-i oraingoan argazkilari gazte hau elkarrizketatzeko.

Nora 21 urteko Debako neska euskaldun bat da, asteen zehar Bilbon bizi dena, Arte Ederrak ikasten ari delako. Gustuko du ikasten ari dena, eta denbora librean, bere inguruko jendearekin egoteaz aparte, ekitaldi kulturaletara joan eta besteek egiten dutenaz gozatzea gustatzen zaiola kontatu digu.

**Azaroaren 29tik abenduaren 1a bitarte Viphoto Argazki Azokan izango zara. Erakusketa horretan ez du nahi duen edonork parte hartzen; hainbat hautagairen artean, epaimahai batek erabakitzen baitu zein artisten lanak jarriko diren ikusgai. Zer sentsazio eragin dizu hautatuen artean zaudela jakiteak?**

Lehenengo eta behin sorpresa handia. Aurten hasi naiz erakusketa, lehiaketa eta abarretara nire proiektuak aurkezten, eta ez nuen espero hain azkar emango zidatenik aukera nire lana erakusteko. Egia esan, lanean jarraitzeko bultzada handia izan da, pentsatuz baten bati interesa piztu diezaiokeela egiten dudanak.

**Ezagutzen zenuen lehendik ere Viphoto Azoka? Nolatan edo zergatik erabaki zenuen bertan parte hartzea?**

Viphoto-ko bigarren edizioa da honako hau, eta aurkezteko epea bukatu baino hilabete lehenago edo eman zidan honen berri lagun batek. Arte gradua aurten bukatuko dut, eta konturatu naiz mugitzen hasi behar dugula, egiten duguna jendearengana zabaltzen saiatuz, arte munduan nola edo hala murgildu nahi badugu. Honenbestez, probatze aldera, bidean zerbait ikasiko nuelakoan, aurkeztea erabaki nuen.

**Zer nolako lanak aurkeztuko dituzu zuk bertan?**

Intimitatearen mugak aztertzen saiatu naiz argazki hauen bidez, hasi Islandiako paisaia basatietatik eta bukatuz hoteletako logela hotzetenan. Non sentitzen gera babestuago? Pribatua dena intimoa goa da, ala ez du zertan? Horrelako ideiak ditut buruan nire irudiei begiratzean. Argazkiak nahiko ezberdinak dira euren artean, gehienak kamera analogikoaz ateratakoak.

**Nondik datorkizu zuri argazkilaritzarekiko zaletasuna?**

Esan dezaket, argazkilaritza, nire arte proiektuak aurrera eramateko medio bezala, urte honen hasieran Bristol-en hartu nuela. Bertan, Erasmus ikastera joan nintzenez, aukera eman zidaten argazkilaritza modulu bat egiteko, hau amaitzean, beste ikasleekin egindako erakusketa bat eta argazkilaritzarako zaletasun eta garatzen joateko interes handiaz itzuli nintzen Debara.

**Beste diziplina artistiko batzuk ere gogoko dituzu, ezta?**

**Badakigu, adibidez, margo lehiaketan saritxo bat ere irabazi berri duzula Deban...**

Egia esan, gaur egun margolaritza nahiko aparte daukat, hala ere, bai, beti gustatzen zait margo lehiaketara aurkeztea, giro polita sortzen da eta. Bestalde, eskulturaren arloan esperimentatzea interesatzen zait gaur egun.

**Zer behar du argazki batek ona izateko?**

Puff... Erantzuten zaila da, izan ere oso onak diren argazki mota ezberdin asko daude, inongo antzekotasunik ez daukatenak beraien artean. Zer daukate hauek guztiek komunean? Gudan zerbait pizteko gaitasuna agian...

**Zer eskaintzen dizu zuri argazkilaritza? Ofizio bezala etorkizunik ikusten al diozu, adibidez, zure kasuan? eta orokorrean?** Argazkilaritzak lehenengo eta behin nire ingurua, mundua, begiratzeko beste begirada mota bat eman dit, adiagoa edo. Orain arreata gehiagorekin begiratzen dut ingurua, pentsatuz askotan nola ikusiko litzatekeen begiratzen dudana kameraren zulo txotik. Nire kasuan ez dakit ofizio bezala ikusten dudana, argi daukat jarraituko dudala lanean, eta nire obra esperimentatu eta garatzen, baina auskalo zer irtengo den hortik. Orokorrean, eta kontuan hartuta irudiaren munduan bizi garela, argi dago argazkilaritzak presentzia handia duela gure gizartean, kazetaritza, enkarguzko argazkilaritza edota publizitaterako argazkilari lez ofizioa topatzeko aukera dezente dagoela uste dut, eta artera bideratutako argazkilaritza egiteko... bakanagoa da aukera, baina egon badago!

**Zertan zabilta murgilduta gaur egun?**

Aurten Arte Gradua bukatzen dudanez, proiektu txikiagoez gain, gradu amaierako lana egitea tokatzen zait, hau gogoz hartu eta hurrengo urteari begira jarri. Seguru aski ikasten jarraituko dut, baina oraindik ez daukat argi nondik joko dudana.

**Beste zerbait nabarmendu nahiko zenuke, Nora?**

Ez, mila esker aukera hau luzatzearen, eta jarraitu orain arte bezala lanean! Eskerrik asko!

# ITZIAR auzo udal bilakatze bidean

Debako Udala Itziarko Auzo-Udala eratzeko pausoak ematen ari da. Udal Plenoak aho batez onartu du (urriaren 9an) Itziarren Tokiko Entitate Txiki bat eratzeko hasierako erabakia. Udalak azken erabakia hartu aurretik, ordea, auzotarrak zein herriko talde eta elkarteak informatu eta Debako auzo guztietako biztanleen iritzia, kezka eta proposamenak zein diren ezagutu nahian, herritarrentzat lau bilera ireki ospatu

ditu urrian –Itziarko herrigunean, Elorriagan, Lasturren eta Deba hirigunean–. Era berean, proiektuari alegazioak aurkezteko epea ere zabaldu da.

Proiektuaren nondik norakoak azalduz Debako Udalak helarazitako prentsa oharra ekarri nahi izan du *Berriketan* aldizkariak lerro hauetara:



“

## **Auzotarren beharrei hobekiago erantzun ahal izateko eta Itziarren berezko nortasunari eusten laguntzeko tresna izango da auzo-udala.**

Urteetan Itziar eta auzoetako herritarren eskaerari erantzunez, tokiko erakundea eratzeko urratsak eman ditugu. Alde horretatik, eskertzekoa da alderdi guztiek egin duten ahalegina, jakinda ikuspuntu desberdinetatik abiatzen ginela, gai izan garelako eskaera honi erantzun amankomun eta bateratu bat bilatzeko.

Eta urte hauetako elkarlanari esker, Itziarko Batzordeak eta Debako Udalak, Siadeco enpresaren aholkularitzarekin, auzo-udala abian jartzea adostu dute eta Debako Udalak urrats hauekin jarraituz, urriaren 9an auzo-udala sortzeko erabakia hartu du udal plenoan.

Auzo-udalaren bitartez Itziarko biztanleek eskumen batzuk eta bere aurrekontua izango dute, modu autonomoan erabakiak hartu eta bertako biztanleen bizi baldintzak hobetu ahal izateko.

Debako hirigunearekiko Itziarko auzotarrek duten urruntasun geografikoarengatik, Udalak eskainitako zerbitzuak jaso ahal izateko herritar guztiek ez dituzte aukera berak gaur egun. Auzotarren behar propioei auzotik erantzun ahal izateko tresna izango da Itziarko auzo-udala.

Bestalde, auzo-udalak Itziarren bideratuko diren zerbitzuak eta ekimenak berezkoak diren nortasun eta ezaugarrietatik antolatu eta kudeatzeko aukera emango du eta aldi berean, funtzionatzeko modu honek, Itziarrek dituen berezko ezaugarri horiei hobeto eusten lagunduko du.

## **Alderdi politiko guztietako ordezkarien parte-hartzearekin adostutako prozesua izan da**

2010eko otsailaren 25ean hartu zuen Debako Udal Plenoak Itziarko auzo-udalaren eraketarako lantalde bat osatzeko era-

bakia eta Debako Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkari-ritza duen batzordea osatu zen, Itziarko Batzordea hain zuzen ere. Orduetik hona, Batzorde horrek lan handia egin du, eta bertan zehaztu dira, besteak beste, honako alderdiak: auzo entitate berriaren eskumenak, Debako Udalarekin zenbait zerbitzu konpartitzeko moduak, Itziarko auzo-udalaren eraginpeko lurralde-eremua, bai auzo-udala beraren eta baita Debako Udalaren bideragarritasun ekonomikoa eta auzo-udalaren datoen 5 urteetarako jardura-plana ere.

## **Auzo-udalaren lurralde-eremua, landa eremuan kokatzen diren Debako auzo guztiek osatuko dute**

Eratuko den entitate berriari dagokion lurralde eremuaren barruan sartuko dira, Debakoak diren landa eremuko ondoko auzo guztiak: Egia, Elorriaga, Endoia, Itsaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Arbiskoa, Mardari, Itziarko kaskoa eta Itziar auzoa. Lurralde-eremu horrek 48 km karratuko azalera du eta Deba Udalerriak orotara 51,9 km karratu ditu.

Auzo horietan bizi diren herritarrak 1.060 inguru dira, Debak guztira 5.450 inguru ditu, beraz udalerriri osoko biztanleriaren %20 inguruk jasoko ditu Itziarko auzo-udalaren zerbitzuak.

## **Itziarko auzo-udalaren erabaki-guneetan, auzo ezberdinek parte-hartzea eta erabaki-ahalmena izatea bultzatuko da**

Itziarko Auzo Batzordea, Auzo-Alkatea eta auzo ezberdinetako juntakideez osatuko da; horrez gain, auzo bat eta besteko herritarrek parte hartuko duten lantaldeak sortzeko ahalegina ere egingo da; guzti horrekin, auzo-udalaren eraginpekoak izango diren auzo bakoitzaren beharrei, erantzun propioak, gertukoak eta ahalik eta egokienak emateko betebeharra izango du Itziarko Auzo-Udalak, hasiera hasieratik.





### **Auzo-udalak eskura dituen aurrekontu eta baliabideen erabilera erabakitzeke eskumena izango du**

Auzo-udalak urteko aurrekontua izango du, kudeatu behar dituen zerbitzu publiko eta Itziarren egin beharreko inbertsioei lotua. Aurrekontu horren zenbatekoa Debako Udalarekin behin adostutakoan, auzo-udalaren bitartez Itziarko bizilagunek erabakiko dute zein zerbitzuri nahiz zein inbertsiori lehentasuna eman; Itziarren egin beharreko herri lan eta inbertsioak bertatik erabakiko dira, beraz.

Aurrekontu eta baliabideei zein erabilera eman erabakitzeke eskubidea, pizgarri izango da auzotarren parte-hartzea indartzeko, auzoetan herri dinamika berriak abiarazteko, azken finean, bere izaerari eutsiko dion Itziar bizi bat izateko.

Bestalde, auzo-udaletik zerbitzuak kudeatu eta aurrekontuen gaineko erabakiak hartu beharko direnez, itziartarrek ardurak hartu beharko dituzte eta arriskuak asumitu; askotan erabaki zailak hartu beharra ere izango delako.

### **Entitate deszentralizatuak bere eskumeneko lur-eremuan eragina duten erabaki-guneetan parte hartuko du**

Itziarko lur-eremuan eragina duten erabakietan, udalerrri nahiz eskualde mailakoetan, zuzenean parte hartuko du auzo-udalak eta ondoko eskumenak izango ditu: Itziarko ondarea eta herri ondasunen kudeaketa, mantenua eta zaintza. Kale garbiketa eta zabor bilketa. Herri lanak. Diziiplina urbanistikoa. Etxebizitzak sustatzeko eskumena. Udal eskumenekoak diren Itziarko auzo-udalaren interes eksklusiboko beste hainbat zerbitzu (kultura; kirola eta gazteria; euskara eta hezkuntza; turismoa, ingurumena eta Geoparkea; oinarrizko gizarte zerbitzuak eta adinekoentzako zerbitzuak; oinarrizko osasun zerbitzuak; hiri segurtasuna, trafikoaren antolaketa eta polizia zerbitzuak eta abar).

Aurreko eskumen horietako batzuk auzo-udaletik zuzenean kudeatuko dira; beste batzuk ordea, Debako Udaletik kudeatuko izango dira. Bereizketa hori, auzo-udalaren unean uneko ahalmen, Debako Udalarekin baliabideak partekatzeke aukera eta Itziarren sortzen diren beharren arabera egingo da.

### **Zerbitzuak bikoiztu gabe, itziartarrek gero eta zerbitzu gehiago eskura izatea lortu nahi da**

Debako Udalean eta beraz Itziarko auzoetatik urruti, gaur egun eskaintzen diren zenbait zerbitzu garrantzitsu Itziarren bertan eskura izatea da erronkarik nagusia: edozein udal tramiteetarako jendaurreko zerbitzua, gizarte zerbitzuak eta adinekoentzako zerbitzuak, herri-lanak eta zerbitzu publikoen mantenu lanak eta abar.

Auzo-udala eta Debako Udalaren ahalmenen neurriko lan-plangintza bat adostu da eta honako konpromisoak hartu:

-Zerbitzuak eta funtzionamendu gastuak ez bikoiztea: Debako Udalak gaur egun dituen giza baliabideak erabiltzen

jarraitu eta gastuen bikoizketa, ahalik eta murriztuena izatea. Horretarako, auzo-udala eta Debako Udalaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da, baliabideak modu eraginkorrean konpartitzeke aukera dagoenean, baliabideen erabilera partekatua lehenetsiko baita.

-Urte urte eskumen berriak kudeatzeko ardura izatea: lehen unetik zerbitzu eta eskumen guztiak ez ditu auzo-udalak kudeatuko; ordea, urtetik urtera, gero eta zerbitzu gehiagoren ardura izango du auzo-udalak eta eskumenak Debako Udalarekin adostuta delegatuko dira.

-Auzo-udalak gero eta antolaketa modu autonomoagoa izatea: bertako langilerik gabe eta Debako Udaleko egungo langileek eskaintako laguntza administratiboarekin jarriko da auzo-udala martxan. Etorkezun hurbilean ordea, oinarrizko zerbitzu batzuetarako beharrezko langileak auzo-udalak berak kontratatutakoak izango dira eta Itziarren sortzen diren behar eta premien arabera, auzo-udaletik bertatik egingo da langileen antolaketa eta kudeaketa.

### **Debako Udalak egungo diru-sarrerak mantenduko ditu**

Itziarko auzo-udalaren eraketak ez du Debako Udalaren ohiko diru-sarreretan inolako eraginik izango eta Deba udalerrri osoari dagozkion zerga, tasa eta transferentzien diru-sarrerak bermatuak daude Debako Udalarentzat.

Debako Udalak bere aurrekontuetan, Itziarko auzo-udalari dagokion aurrekontua onartuko du eta aurrekontu hori, auzo-udalak kudeatu behar dituen zerbitzuen arabera finkatuko da. Zerbitzu horiek Itziartik kudeatzera pasatakoan, Debako Udalak horien ordainketa egiteari utziko dio.

Itziarko Batzordean adostutako kudeaketa moduarekin eta baliabideak Debako Udalarekin partekatzeke neurriak hartuta, entitate deszentralizatuak eratzeko Debako Udalean lehendabiziko urtean izango lukeen gain kostua, gehienez ere 40.000 euro ingurukoa izango litzateke. Egitasmoa bideragarria da Debako Udalarentzat, asumitu beharreko gain kostu hori, Debako Udalak 2013rako onartutako aurrekontuaren %0,6 baino ez bailitzateke izango.

### **Auzo-batzarrak eta herritarren parte-hartze dinamikak antolatu dira urriaren 21etik 24ra**

Debako Udalak Itziarko auzo-udalaz hartutako erabakiaren berri eman, herritarren kezkei erantzun eta haien proposamenak jasotzeko parte-hartze prozesu irekiak martxan jarri dira. Urriaren 21etik 24ra, Debako auzo ezberdinetan antolatu dira auzo batzarrak eta Debako Udaletik herritar guztiei deialdia luzatu zaie bilerak ireki horietan parte hartzeke gonbidapena eginenez. Bilerak, Deba hirigunean, Itziarko herrigunean, Lasturren eta Elorriagan burutu dira. Edonola ere, Debako Udalak herritarrei informazioa zabalduko die.

”

## Carmelo Urdangarini eman diote Gure Balioak 2013 saria Gaztetatik erakutsi duen lankidetzarako gaitasuna nabarmendu du epaimahaiak



Debegesak (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartek) antolatzen dituen Gure Balioak sarietan gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitatearen lana aitortu eta saritzen dute. Eta aurten, sarien IV. edizioan, Carmelo Urdangarin debarrak jaso du errekonozimendua, bereziki, “enpresa, kultura zein gizarte esparruan gaztetatik erakutsitako lankidetzarako gaitasuna” nabarmenduta.

Sari-emate ekitaldia urriaren 23an izan zen, Agirre Jauregiko Ispiluen Gela bete-betean. Ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Juan Maria Aburto Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako sailburuak eta Deustuko Unibertsitateko Soziologia katedradun Jon Leonardo Aurtenetxek. Gure Balioak saria (Juan Luis Baroja Collet artistak sortutakoa), Jesus Bilbao iazko saridunaren eskutik jaso zuen Urdangarinek.


Epaimahaiak azpimarratu zuenez, Urdangarin “beti agertu da elkarlanerako prest, beste erakunde edo pertsonekin lankidetzan aritzeko gertu, bere onena emateko gogoz beti”. Eta saria debarrari ematerako orduan beste hainbat ezaugarri ere izan ditu kontuan: “gizarte arloko inplikazio maila altua, bere ezagutza eta esperientziak zabaltzeko eta partekatzeke interes amaigabea eta bere ibilbidean zehar erakutsi duen enpresa-konpromisoa”.

### Ekonomialaria eta kultur arloko pertsona ezaguna

Carmelo Urdangarin Altuna Deban jaio zen, 1932. urtean. Gaztetatik izan du Debabarrena eskualdeko kulturarekin eta gizarte mugimenduarekin harreman estua.

Peritu eta merkataritza-irakasletza ikasketak burutu zituen eta Orbea enpresan hasi zen lanean, kronometradore. 1971an, enpresa desagertzeaz zela, itxiera hori ekiditeko egin zuen lana “erabakigarria” izan zen Orbea Kooperatiba izatera pasa zedin. Enpresa-estrategia diseinatu zuen lehendabiziko urte haietarako eta gaur egun denaren oinarriak ezarri zituen. Orbeako zuzendari izendatu zuten gero eta karguari eutsi zion Caja Laboral Popular-eko enpresa-atalera pasa zen arte (han ere zuzendaritza-kargua izan zuen).

Urte haietan, beste hainbat lagunekin batera, Deban enpresa industrial bat ezartzeko lanean hasi zen Urdangarin; lan baldintzak hobetzea zen horretarako arrazoietakoa bat. 1962an Acme-Deva enpresa eratu zuten 18 bazkide fundatzairekin artean, kooperatiba ereduaren aldeko apustua egin.



1969an, Danobat, Eguzki eta Acme-Deba fusionatu egin ziren, Danobat S. Coop. eratuz. Eta Urdangarin enpresa horretako Batzar Nagusiko kide izan zen eta bertan egin zuen lan 1997an erretiroa hartu zuen arte.

Erretiroa hartu bazuen ere, aktibo jarraitzen du Urdangarinek. Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako hainbat graduondoko ikastarotan parte hartu izan du, bereziki, nazioarteko kudeaketari buruzko ikastaroetan. Komunikabideetan ere sarritan parte hartzen du, irratian zein prentsa idatzian. Eta, Debegesak aipatu bezala, beste esparru batean, kostalde nuklearraren aurkako borrokan ere aktiboki parte hartu zuen Urdangarinek.

Deban hezkuntza zein kulturaren alde lan egindako Ostolaza Fondoko kide izan da. Gipuzkoako eskolak euskalduntzeko lan egin zuen eta euskal kulturarekin harreman estua izan du beti. Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Eusko Ikaskuntzako kidea da, eta aipagarria da antzinako ofizioen arloan egin duen lana ere. Horren erakusle, artisauen artean egindako 400 elkarrizketa baino gehiago. Lan honen guztiaren zati batek argia ikusi du eta gaiarekin lotutako hainbat argitalpen publikatu ditu, 20 liburu baino gehiago. Gipuzkoako Foru Aldundiaren errekonozimendua jaso du horregatik. Ikerketa etnografiko hau jorrazteko, azken urte hauetan Jose Mari Izaga Reiner eta Koldo Lizarralde Elberdinekin dihardu elkarlanean.

## BERRIKETAN GAZTEA

Mendata BHI-ko Prentsa Tallerrean Sortua.  
2013ko azaroa

Elgoibartar batek dioenez, “nazkaturik” daude “orain dela 30 urtetik larunbat guztietan” errepikatzen den egoeraz. Larunbat guztietan gazte batzuek sorrazten dituzten “borrokak, apurketak eta erasoak” salatu ditu.

Alde ilun asko dituzte Elgoibarko larunbatek. Esate baterako, Elgoibarko udaltzaingoak eta ertzaintzak sarekadak egin dituzte San Frantzisko kaleko lau tabernatan (Landa, Illunpe, Truk eta Kartutxo), bertatik 16 urte baino gazteagoak

ateratzeko; taberna horietan 16 urtetik beherako 51 gazte aurkitu zituzten.

Horietatik guztietatik, lau bakarrik ziren Elgoibarkoak, eta beste 47ak gertuko herritakoak ziren: Eibar (28), Mutriku (6), Mendaro (5), Deba (3), Azpeitia (2) eta Zaldibar (2). Beraz, inguruko gaztetxo asko joaten da bertara.

Edanda daudenean, gazte askok portaletan pixa egin, kotxeak apurtu, botilak apurtu, zaborra lurrian utzi eta zuhaitzen adarrak ere apurtu egiten dituzte. Azkenaldian, gainera, gurasoek uste dute Elgoibarko alkohol kontsumoaren zaintza gutxitu egin dela.

Hala ere, Elgoibarko giroak baditu alde onak: ondo pasatzeko aukera dago, eta askok ligatu eta lagun berriak egiten dituzte bertan. Gainera, garraio publikoa dagoenez (autobusa, trenak), ez dago kotxea hartu beharrik. Tabernek ere irabaziak izaten dituzte krisi garaian ere; beraz, tabernarientzat ona da herri askotako jendea bertara joatea.



## Elgoibartarrak larunbatez nekaturik

## Inprimagailuen kartutxo bilketa

Aurten, Agenda 21ek hainbat proiektu ditu, eta inprimagailuen kartutxo bilketa da horietako bat.


Bilketa hori institutuko 4. mailako ikasleek egin dute, ikasbidaiarako diru pixka bat lortzeko eta ekintza erabilitako kartutxoak haiei ematean datza. Horretarako, laga itzazue kartutxoak Arkatza eta Masillo liburu-dendetan edo Mendata institutuan. Gainera, esan digute ezinbestekoa dela zuen laguntza eta asko eskertzen dutela kartutxoak aipatutako lekuren batera eramatea.



# ELKA RRIZ KETA

## MARTIN HERNANDEZ

Martin Hernandez gure institutuan ikasten duen kirolari aparta da. DBH 1ean dago, eta Gipuzkoako txapelduna da jadanik. Aurten, 1.000 metroko bere kategoriako txapelduna izan da atletismoan, hiru minutu eta hamabi segunduko marka hautsiz.



**Zein kirol egiten duzu?**  
Atletismoa.

**Hartu al duzu noizbait parte txapelketaren batean? Eta irabazi al duzu baten bat?**  
Bai, Gipuzkoako 4 txapelketa irabazi ditut.

**Beste kirolen bat ere egingo al zenuke?**  
Ez, ez nuke gehiago egingo. Ez dut besterik behar.

**Disfrutatzen al duzu kirola egiten zaudenean?**  
Bai, asko.

**Zenbat entrenatzen duzu astean zehar? Sakrifikatua da?**  
Normalean astean hiru egunetan entrenatzen dut. Bai, oso sakrifikatua da.

**Titulurik ba al duzu?**  
Bai, Gipuzkoako 4 txapelketa irabazi ditut.

**Etorkizunerako ikusten al duzu aukerarik hortaz bizi ahal izateko?**  
Ahal bada, bai.

**Kirol mota bat aukeratu beharko bazenu zein aukeratuko zenuke?**  
Atletismoa aukeratuko nuke.

EGILEAK: Alex Martija eta Iñigo Egaña

# AZTERKETAK, IKASGAIAK...

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean azterketei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Azterketa asko izan al dituzue?
- 2.- Denbora asko pasatu al duzu ikasten?
- 3.- Zein ikasgai da zure gustukoena?
- 4.- Zein gustatzen zaizu gutxien?
- 5.- Azterketak baino egun batzuk lehenago edo bezperan hasten zara ikasten?



## Nora Iriando:

- 1.- Bai.
- 2.- Bai, dexente.
- 3.- Natur.
- 4.- Gizarte.
- 5.- Aurretik errepasatzen joaten naiz.



## Oihan Bores:

- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Heziketa fisikoa.
- 4.- Gaztelera.
- 5.- Batzuetan aurretik ikasten dut eta beste batzuetan bezperan.



## Jon Bollain:

- 1.- Bai, dexente.
- 2.- Ez asko.
- 3.- Artisautza.
- 4.- Ingelesa.
- 5.- Bezperan.



## Sara Lili:

- 1.- Bai, dexente.
- 2.- Bai.
- 3.- Plastika.
- 4.- Natur.
- 5.- Batzuetan egun batzuk lehenago hasten naiz eta beste batzuetan bezperan.



## Alex Treku:

- 1.- Bai.
- 2.- Bai, pila bat.
- 3.- Biogeo.
- 4.- Matematika.
- 5.- Bi egun lehenago edo bezperan bestela.



## Joseba Urkiri:

- 1.- Bai, dexente.
- 2.- Ez, beti bezala.
- 3.- Teknologia.
- 4.- Gaztelera.
- 5.- Gehienetan bezperan.




## Paule Aranberri:

- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Natur.
- 4.- Plastika.
- 5.- Gehienetan egun batzuk lehenago.



## Agurtzane Valenciano:

- 1.- Bai.
- 2.- Besterik gabe.
- 3.- Artisautza.
- 4.- Ingelesa.
- 5.- Batzuetan bezperan, beste batzuetan egun batzuk lehenago.



# DenBord-pasaak



Zein animalia daude ezkutuan?

Aurki itzazu zazpi animalia,  
izenak ordenatuz.

1 - Di - a - Zal =

2 - Ria - Aha =

3 - Ker - ra - A =


4 - Ri - A - Zer =

5 - La - Rra - Oi =

6 - Tu - a - Ka =

7 - Ze - Na - Ze =

## AURKITU BIDEAK



EGILEAK: Kimetz Alberdi, Aitor Gonzalez eta Alex Alonso

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALDETTA 2013-2014

Aitor Gonzalez  
Alex Martija  
Unai Matias  
Ekaitz Zubimendi  
Kimetz Juaristi

Maite Aldabaldeireku  
Alex Alonso  
Julen Aristi  
Josu Arute  
Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meababasterretxea

## “Deba 100 hitzetan” lehiaketa Ione Fernandezek eta Rafael Bravok irabazi dute

50 idazlan euskaraz eta 22 gaztelaniaz; 72 literatur lan guztira. Horixe da Debako Udalak eta Diego Sagredo Fundazioak antolatutako “Deba 100 hitzetan” literatur lehiaketak izan duen erantzuna. Debako udalerriarekin, bere historia, kultura, paisaia, jendea, ohitura, festak nahiz herriarekin zerikusia duten gaiak landuta, ehun hitzez osatutako lanak –euskaraz edo gaztelera– aurkeztu behar izan dituzte parte-hartzaileek eta epaimahaiak bi sari banatu ditu hizkuntza bakoitzeko, lehenengoa 500 eurokoa eta bigarrena 200 eurokoa.

Bada, euskarazko lanen artean, Ione Fernandezek lortu du lehenengo saria, “Hotzikara” izenburuko lanarekin, eta Amaia Zinkunegi gelditu da bigarren postuan, “Orduan” idazlanarekin. Joseba Escudero, Estibaliz Beltrán de Heredia eta Goizane Aizpuruak osatu dute epaimahaia.

Rafael Bravok irabazi du lehen saria gaztelaniaz idatzitako kategorian –“Mimbres” lanarekin–, eta Juan Cardenasen



“La imprecación” idazlanari eman dio bigarren saria Alex Turrillas, Jesus M<sup>a</sup> Etxezarreta eta Patxi Aizpitartek osatutako epaimahaiak.

Euskarazko bi lan sarituak hemen azpian dituzue irakurgai:

### Hotzikara

Oroitzapenez betetako maleta zaharkitua gogor eutsi eta Egogaingo egoitzan lur hartu zuen. Bertan ikasi zuen “herrimin” hitzaren esanahia, “Debamina”.

*Itsasoko haize leuna eta honek garraiaturiko askatasun usaina...*

*Hondar epela, beroa, hezea, bustia...*

*Hura zapaltzeak sortarazten zion amaierarik gabeko hotzikara...*

*Non ote zeuden bizirik sentiarazten zuten bizipenak?*

Oxigeno makina itzali eta begietara begiratu esan zidan: “Ekariezadazu Debako harez beteriko bi poltsakada”.

Lagunak beti lagun... eraman nizkion biak: hezea batean, lehorra bestean. Esku zimurtuak hondarrean barneratu zituen gogoz; sentituz, usainduz, oroitzapenetan murgilduz... Logelako zoruan sakabanatu zuen dena; oinustu eta begiak indarrez itxi bitartean. Honela aurkitu zuten erizainek, hotzikara amaigabea, DEBAKO HONDARTZAN...

Ione Fernandez

### Orduan

Artxiolaren bizikletak plazan: gorriak, txuriak, horiak,... lurtean, bata bestearen ondoan, ilaran.

M. Pilarren gelak ketan. Hautsontzi mutxikin beteak.

“Txorro, morro”, “al pimiento colorado”, “policías y ladrones”, “kadeneta”; pañuelito, bote-bote, brilé; bis-bis, mariseco.

Eliaren etxea. Solfoa. Zeinen gustora joaten nintzen solfoera! Txakurra, zigarroa,... usaina. Usain goxoa!

Gure Kai. Txaro. Teron, teron.

Garbiñe, Itziar. 10 mandamentu Sinisten dut Agur erregina.

Ikastola, eskola. Gu eta haiek. Euskara eta erdara. Gu euskara? Miramar gozotegia plaza zaharrean. Kanelazko opilak bazkailondoan; etxetik ikastolara bidean, arratsalderoko erritual ezin bestekoa.

Trekuneko ogi egin berria. Epela. Kras-kras esku artean. Egundon Karmen; egundon M. Angeles.

...

Nik 12 urte.

Amaia Zinkunegi

## 58 familia hasi dira auzokonpostajea egiten

Urriaren ospatutako ikastaroetan Debako 58 familiak auzokonpostajea egiteko argibideak, ontzia, giltza eta esku orria jaso zituzten eta azaroaren 1ean hasi dira auzokonpostajea egiten.

Hasiera batean bi konpost-gune ezarri dira Deban; bata Itur kalean, erdiguneko familientzako, eta bestea Mogel kalean, Agirretxeontzako. Ikastaroak bigarren gune horretan bertan ospatu ziren, herritarrek konpost-guneen eredu eta funtzionamendua ezagutzeko helburuarekin. Horrez gain, familia bakoitzari konposta non egitea egokitu zaion azaldu eta gune bakoitzeko arduradunak ere izendatu ziren. Itxaron zerrendan dauden 34 familiei eta hemendik aurrera izena eman dezaketen gainontzeko familiei ikastaroak eta materiala banatzea aurreikusten da; izan ere, bi gune hauetan oraindik ere badago lekua, eta eska-



riaren arabera Udalak ez du baztertzen gune gehiago eraikitzea.

Auzokonpostajea egin nahi duten familiek oraindik ere izena eman dezakete, udalera deituz (943 19 28 40) edo helbide honetara idatziz: [konposta@deba.net](mailto:konposta@deba.net). Informazio gehiagorako: [www.deba.net/ew/udala/udalaren-egitura-eta-sailak/ingurumena/hondakinak/auzo-konposta](http://www.deba.net/ew/udala/udalaren-egitura-eta-sailak/ingurumena/hondakinak/auzo-konposta).

## Oteizak herrian utzitako arrastoa gogoratu nahian burututako ekimenen errepasoa, iruditan



“Oteizaren hazia; Eskola esperimentaletik Debako Arte Eskolara” lelopean, Jorge Oteizak herrian utzitako arrastoa gogorarazteko egitarau oparoa antolatu zuten urrian zehar Debako Udalak, Kultur Elkarteak eta Debako Arte Eskolak elkarlanean, artista oriotarraren heriotzaren hamargarren urtemuga betetzean. Ekimenak aurrera atera ahal izateko, herriko hainbat elkarte ere aritu dira lanean, hala nola Gaztelekua, Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldea, Haitz Haundi Pintura Taldea eta Luzaro zein Mendata ikastetxeak.

Egitarauaren berri eman zuen *Berriketan* aldizkariak urriko alean, eta oraingoan irudi-bilduma osatu du burututako ekimen batzuekin. Bertan dituzue ikusgai, besteak beste, estalitako pasealekuan egindako Arte Eskolako tailerren era-

kustaldia edota Kultur Elkartearen “Oteiza eta Deba” izenburupean eskainitako hitzaldi eta mahai-ingurua (Rafael Castellano idazlea, Mikel Campo Debako Arte Eskolako zuzendaria eta Maider Zubikarai alkatearen parte-hartzearekin).

Urriaren 13an haurrentzako jardunaldiak izan ziren, adibidez, eta bideo emanaldi bat ez ezik, Kultur Elkartearen “Oteiza. Testuak eta beste poemak” izenburuko bakarrizketa saioa entzuteko aukera ere izan zen urriaren 18an, Patxi Santamariaren eskutik.

Azken irudia urriaren 21ean ateratakoa da; Itziarren, Oteizaren “Amatasuna” eskulturari buruz Willy Berasaluze artista debarrak egindako gogoangarri informatiboa inaureratu zen egunekoak, hain zuzen ere.

## Abenduaren 27tik 30a bitarte ospatuko da Animadeba animazio zinemaldia

Animadeba 2013 jaialdia abenduaren 27tik 30a bitartean ospatuko da. Animazio zinemaldiaren seigarren edizioa izango da aurtengoa eta, beste behin ere, egitarau zabala prestatzen ari da Debako Udala urteko azken egun horietarako. Besteak beste, haur zein helduentzako animaziozko film laburrak eta luzemetraiak ikusteko aukera izango da –euskaraz zein gaztelaniaz izango dira emanaldiak-. Eta jaialdiaren harira aurten Rotoskopia animazio teknikaren inguruko tailerra ere antolatu da. Abenduaren 14an, 21ean eta 28an (larunbatak) eskainiko dira saio horiek, goizez, eta bertan parte hartu nahi dutenek

Debako Turismo Bulegora jo beharko dute izena emateko.

Aurtengo jaialdiaren egitaraua abenduko *Berriketan* aldizkarian ere argitaratuko da. Aurrez, dena den, gogoratu abian dela **V. Animadeba Gortina Lehiaketa** ere. Nahi duenak parte har dezake lehiaketan, jaioterri eta bizilekuak direnak direla, eta nahi adina gortina aurkez daitezke. Edozein animazio teknika onartuko da, baina beharrezkoa izango da gortina guztiek ANIMADEBA 2014ko logoa edukitzea. Lanak bidaltzeko epea abenduaren 13an amaitzen da, 14:00etan, eta saria 700 eurokoa izango da.



## Bertso finalerako bi sarrera lortu ditu Monika Beitia Zuhatzakideak



Azken asteotan, 2013ko Bertso Txapelketa Nagusiko finalerako sarrera salmentaz eta autobusaren antolakuntzaz arduratzen ari da Zuhatza Euskara Elkartea, Bertsozale Elkartearekin elkarlanean. Abenduaren 15ean izango da finala, Barakaldoko BECen, eta hitzordurako sarrerak (30 euro), autobuserako tiketak (13 euro) eta bazkarirako txartelak (18 euro) Zuhatza elkartearen bulegoan eskuratu daitezte, azaroaren erdialdera arte (ordutegia: astelehen eta astearteak, 18:00etatik 20:00etara). Edozein zalantza argitzeko idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbide elektronikora edo deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira. Informazio gehiagorako: [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) atari digitala.

Zuhatzak ere euskara eta euskal kulturaren aldeko ekimenekin bat egiteko apustua egina du, baina elkarteak jakin badaki antzeko zereginetan jarraitu ahal izateko ezinbestekoa duela elkarteke bazkideen laguntza. Hori eskertze aldera, hain justu, oraingoan Txapelketa Nagusiko finalerako bi sarrera zozketatu ditu bazkideen artean: Monika Beitia Onaindia da saritua!!

## Zatoz Mintzalagun egitasmora!! Garaiz zabilta oraindik!!

Mintzalagun programan izena emateko epea azaroaren 12an amaitu den arren, kurtsoan zehar ere badago egitasmoarekin bat egiteko aukera. Sortuta dauden taldeetan leku egingo dizu Zuhatza Euskara Elkartek.

Mintzapraktika egitasmoek euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten lagunak ohitura dutenekin batzen dituzte, erabileran eragiteko eta hizketarako konfiantza eta gune berriak eskaintzeko. Astean ordubeteko saioak izan ohi dira, eta doakoa da izen-ematea. Aurtengo kanpainan zabaldu den mezua hauxe da: "Supermintzalagun izan nahi? Elkartu gurekin!".

Deban, Zuhatza elkarteak antolatzen du Mintzalaguna ekimena. Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesten dute, eta euskaltegiaren eta Topagunearen laguntza ere badu.

Euskaraz aritzeko gogoia baldin baduzu, lagun berriak egin nahi badituzu edota ikasturte honetan esperientzia berriren bat izan nahi baduzu... animatu eta parte hartu Mintzalagunean!!


Informazio gehiagorako, idatzi [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) helbidera, deitu 943 19 13 83 telefono zenbakira edo pasa euskara elkartearen bulegotik (Ifar kalea, 12 behea).

## Euskal Kostaldeko Geoparkeak Geoturismoari buruzko nazioarteko kongresu batean parte hartu du

Deba, Zumaia eta Mutrikuko alkateak -Maidier Zubikarai, Iñaki Agirrezabalaga eta Joseba Palenzuela, hurrenez hurren-, eta Geoparkeko gerente Leire Barriuso zein Asier Hilario zuzendari zientifikoa Geoturismoari buruzko kongresu batean izan dira urriaren amaieran, Cabra herrian (Kordoba). Nazioarteko 300 aditu elkartu ziren bertan, "Iurraldearen garapen ekonomikorako Geoturismoak eskaintzen dituen potentzialitateak" aztertu asmoz.

Kongresua "Geoempleo: Geodibertsitatea enplegu-hobi gisa" proiektuaren baitan kokatzen da. Geoparkeko kideek azaldu bezala, "proiektuaren helburuen artean daude, batetik, ondare geologikoaren eta ingurune sozioekonomikoaren arteko harremanaren estutzea, bertako biztanleen inplikazio aktiboa lortuz; jarduera ekonomiko jasangarriak hobetzeko erremintak sortzea; lankidetzaz zientifikoa, ekonomikoa eta soziala bideratzeko modu edota prozedurak finkatzea; eta ondarearen interpretaziorako, dibulgaziorako eta ondare hau balioan jartzeko metodologia berriak garatzea".





## Agenda

## Azaroak 15, ostirala

-17:00. **Haurrentzako ludoteka**, Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatuta. Foruen plazan.

-22:00. **Malaturen kontzertua**, Agirre jauregiko ispiluen gelan, Debako Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta (sarrera: 3 euro).

## Azaroak 17, igandea

-17:00. **Umeentzako jazz kontzertua**, lau eta hamabi urte bitarteko haurrentzat. Agirre jauregiko ispiluen gelan.

## Azaroak 19, asteartea

-17:30. **Gurasoak etxetik-Entra un idioma en casa**. Euskaraz ondo moldatzen ez diren gurasoekin hizkuntza kontuak lantzeko saioa. Agirre jauregiko ispiluen gelan.

-19:30. Martuteneko kartzelari buruzko **dokumental** emanaldia.

## Azaroak 22, ostirala

-8:30. **Santa Zezilia**. Txistularien diana.

-17:00. **Haurrentzako ludoteka**, Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatuta. Lasturko frontoian.

-18:00. **Lorea Agirrerren hitzaldia**: "Hizkuntza eta kulturaren garraio, autobide, bidezidor eta bidegorri mapa bat". Udaleko Euskara Batzordeak antolatuta, Agirre jauregiko ispiluen gelan.

-19:30. **Geoparkea eta Karsta**; hitzaldia eta ikus-entzunezkoa.

## Azaroak 23, larunbata

-12:30. **Bandaren kontzertua**, elizako klaustroan.

-13:00. **Txistularien emanaldia**, udaletxeko arkupetan.

-**Aitzuri abesbatza**, kalez kale.

-22:00. **Poesia errezitaldia**: "Elkartasun basatia" (Oier Guillan). Agirre jauregiko ispiluen gelan (sarrera: 3 euro).

## Azaroak 24, igandea

-8:30. **Mendi irteera: Ernio**, Burdin Kurutz eta Luzarok antolatuta. Izen-ematea: Azoka dendan, azaroaren 21a arte.

## Azaroak 25, astelehena

-**Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna**. 19:30ean elkarretaratzea plazan eta hitzaldia Kultur Elkartearen.

## Azaroak 29, ostirala

-17:00. **Haurrentzako ludoteka**, Zuhatza Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatuta. Foruen plazan.

-19:30. **Azken ostirala**. Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa plazan, Herrira mugimenduak deituta.

-20:00. **Bertso-triki poteoa**, udaletxeko arkupetatik abiatuta, Itziaroko bertso eskolakoen eskutik. Ondoren, bertso afaria.

## Abenduak 1, igandea

-**Ipuin kontaketa**. Miriam Mendoza, Agirre jauregiko ispiluen gelan. Saioak: 17:00 (HH 3-4 eta 5 urte), 18:00 (LH 4-5 eta 6. mailak).

## Abenduak 7, larunbata

-22:00. "**Poza**" Antzerki Esperimentala (Metrokoadroka), Agirre jauregiko ispiluen gelan (sarrera: 3 euro).

## Abenduak 13, ostirala

-22:00. "**Mugaldekoak**" (Blues). Agirre jauregiko ispiluen gelan.

## Abenduak 14, larunbata

-22:00. "**Zer duzu Amy?**" antzerkia (Leire Ucha). Agirre jauregiko ispiluen gelan (sarrera: 3 euro).

## Aitzuri Abesbatzaren 25. urteurrena

-Aitzuri Abesbatzaren 25. urteurrena dela eta, **kide ohiekin bazkaria** egingo da azaroaren 23an (larunbata). Izena emateko epea azaroaren 17an amaitzen da.

## Beldur Barik Debako sari banaketa

-Aurten ere, Deban Beldur Barik lehiaketa antolatu da, emakumeen kontrako diskriminazioak ikustarazten dituzten adierazpen artistikoak saritu eta bultzatzeko helburuarekin. Lehiaketa horretan errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarrerak saritzen dituzte. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 29an izango da, arratsaldeko 19:00etan Agirre jauregiko ispiluen gelan.



## Euskararen Egunen bueltan

-Abenduaren 3an (asteartea) Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Data hori ez da oharkabean pasako Deban ere ez, nahiz eta jakina den Euskarak 365 egun dituela. Ekimen nagusia azaroaren 30ean (larunbata) burutuko da herrian, eguerdian, plazan eta inguruetan. Antolaketa lanak abian dira dagoeneko eta, eguerdiko hitzorduaz gain, arratsaldean "Buah, txabal" antzerkia ikusteko aukera izango da. Emanaldia Gaztelekuan egingo da, eta gazte guztiei irekia egongo da.



## Pedagogia Berdea Familian

-Debanaturak Pedagogia Berdea Familian izeneko tailerra eskainiko du azaroaren 30ean eta abenduaren 7an.

Lehenengo egunean saio teorikoa izango da Zentroan, eta bigarren egunean saio praktikoa egingo da Osioko basoan.

Izen-ematea: 50 euro. Informazio gehiagorako: 943 19 11 72 / 695 783 656, [debanatura@hotmail.com](mailto:debanatura@hotmail.com) edo [www.debanatura.net](http://www.debanatura.net).

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **azaroak 15, 16, 17, 25, 26, 27, 28.**  
**abenduak 13, 14, 15.**

Burgoa Zuazo: **azaroak 29 eta 30.**

**abenduak 1, 9, 10, 11, 12.**

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat gardian.

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: azaroak 16 eta 23

BURGOA ZUAZO: azaroak 30

abenduak 7

9:30 - 13:30



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



# ABEL

## Kristaldegia

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



## AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95



## URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

## LENTZERIA



## MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



# kutxa

Zugandik Zugana

## haizea

estetika

Tif. 943 029 607  
Iturkale 22, 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

## ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behean, 20820 DEBA  
943 029 186



## ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

## Calbeton



JATETXEA

Agustín  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## L.A.

## LARRAMENDI ANIAK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



- INPLANTEAK
- PADI-a (haurren programa)
- ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- ENDODONTZIA
- PROTESI FINKO / MUGIKORRA
- ODONTOLOGIA OROKORRA



## NORA HORTZ KLINIKA

Azpilgoeta 5  
Mendaro

943 033 575

Lehen bisita, diagnostikoa eta  
aurrekontua doan.

**Zatoz Kolore Anitzen Ludotekara!**

- Azaroak 8, ostirala **Itziarren** (Frontoian)
- Azaroak 15, ostirala **Deban** (Foruen plazan)
- Azaroak 22, ostirala **Lasturren** (Frontoian)
- Azaroak 29, ostirala **Deban** (Foruen plazan)

**Ordua: 17:00etatik 19:00etara**

Oharra: 6 urtetik beherako haurrak, heldu batekin ager daitezela

**Giro paregabea**  
**Jolasak Tailerrak**  
**Musika Txokoak**

Zuh-tza  
KOLORAK  
Deban